

## **2017-01-31ko OHIKO UDALBATZA**

Irurako udaletxean, 2017ko urtarrilaren 31n, arratsaldeko 19:30ean, lehen deialdia egin ondoren, Udaltzaria bildu da ohiko osoko bilkura egiteko. Mahaiburua Ana Jesús Leunda Gurruchaga izan da, udaleko alkate-lehendakaria, eta zinegotzi hauek agertu dira gaiak aztertzeko:

-Azaldu diren EAJ/PNV udal-taldeko zinegotziak: Jesus Maria Alonso Insausti, Jose Ramon Epelde Irizar, Maria Cristina Santos San Sebastian eta Marta Castrillo Iturralde.

-Azaldu ez diren EAJ/PNV udal-taldeko zinegotziak: inor ez.

-Azaldu diren EH BILDU udal-taldeko zinegotziak: Ainhoa Ugalde Gorostiaga, Olaia Nieto Legarra, Mikel Gotzon Iturbe Saizar eta Jose Ignacio Imaz Bengoechea.

-Azaldu ez diren BILDU udal-taldeko zinegotziak: inor ez.

Miguel Antonio Arrizabalaga Brusin Udaleko idazkariak egin ditu idazkari lanak.

Alkateak irekitzat jo du saio publikoa; segituan, eta alkatearen baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egin daitekeela, bertara agertu baita gutxieneko partaide-kopurua, Toki Erregimeneko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, Toki Erakundearen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araudi Juridikoaren Erregelamendua onartzen duenak, agindutakoa.

### **LEHENENGO GAIA**

#### **AURREKO AKTAK ONARTZEA (2016-12-13; 2017-01-26).**

Udalbatzak 2016ko abenduaren 13ko aktaren zirriborroa onartu du, aho batez.

### **BIGARREN GAIA**

#### **ALKATETZAREN DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2016/220 DEKRETUTIK 2016/241 DEKRETURA ARTE ETA 2017/1 DEKRETUTIK 2017/18 DEKRETURA ARTE.**

Alkateak 2016/220 dekretutik 2016/241 dekretura arteko eta 2017/1 dekretutik 2017/18 dekretura artekoen berri eman dio udalbatzari.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

Ainhoa Ugalde zinegotziak galdetu du ea udaleko garbitzaileak auzia jarri duen Udalaren aurka.

Idazkariak adierazi du langileak Gizarte Segurantzaren aurka jarri duela auzia, baja erregimena aldatzeko, hau da, baja arrunta izan ordez lan-istripu edo lan-gaixotasunagatik izan dadin.

Alkateak adierazi du gaur operatu dutela.

## **HIRUGARREN GAIA**

### **IRURAKO UDALEKO LANGILEEN 2017RAKO EGUTEGIA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

Udal honetako langileen 2017rako lan-egutegia onartu beharra dago.  
Udalbatzak, aho batez, hau onartu du:

### **ERABAKIA**

1.-Udal honetako langileen 2017rako lan-egutegia onartzea, honako lan-arloetakoak:

- Bulego orokorra.
- Obra eta zerbitzuen brigada.
- Hirigintza.
- Kultura
- Euskara zerbitzua
- Gizarte zerbitzuak.

2.-Gainera araudi orokorrak hauek izango dira:

- a) Urteko lanaldiak 1.592 ordu izango ditu, dedikazio partziala duten langileentzat izan ezik. Azken hauei dagokien murrizketa partziala egingo zaie. Aipatutako ordu-kopurua baino txikiagoa azaltzen den egutegien kasuan, guztizko kopurura iritsi arteko gainerako orduak bilerekin, aparteko orduekin osatuko dira.
- b) Asteko ordutegi normalizatua: 35 ordu, 8:00etatik 15:00etara izango da.
- c) Egutegia aurkeztu ez dutenek bulego orokorreko egutegia hartuko dute erreferentzia gisa.
- d) Oporrak: 24 lanegun, astelehenetik ostiralera.
- e) Norberaren arazoetarako lizentzia egunak: urteko lan-ordutegiko 6 egun.
- f) Antzinasun egunak: seigarren hirurtekoa betetzean, bi egun gehiago, eta zortzigarrenetik aurrera, hirurteko bakoitzeko egun bat gehiago.
- g) Jaiegun ofizialak, estatukoak, autonomikoak eta tokikoak: 14 jaiegun.

## LAUGARREN GAIA

### **TOLOSALDEKO UDALERRIEN TOKIKO GARAPEN IRAUNKORREKO POLITIKEN SUSTAPENERAKO, TOLOSALDEA GARATZEN S.A ETA IRURAKO UDALAREN ARTEAN LANKIDETZA HITZARMENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

Proposatu da hitzarmena onartzea, Irurako Udalaren eta Tolosaldea Garatzen S.A.-ren arteko harremana arautzeko, Tolosaldeko udalerrietan garapen jasangarriaren inguruko ekimenak garatzeko tokiko garapen jasangarriko teknikariak kontratatzeko. Orain proposatu da teknikariaren dedikazioa %10 jaitea.

Hori ikusita, aldeko 5 botorekin eta 4 abstentziorekin, udalbatzak hau onartu du:

Lehena.- Aipatu den hitzarmena onartzea.

Bigarrena.- Ana Jesús Leunda Gurruchaga Alkateari baimena ematea hitzarmen hori sinatzeko Irurako Udalaren izenean.

Ainhoa Ugalde zinegotziak adierazi du bere taldea abstenitu egin dela, ez dutelako onuradunik ikusten aldaketa honekin.

## BOSGARREN GAIA

### **KOMUNITATEAREN ALDEKO LANAK EGITEKO ESKAERA.**

R. A. de M. hiritarrak eskatu du zigor penala betetzeko herriarentzako lanak egitea Irurako Udalean, baina asteburuetan bakarrik.

Baina ikusita asteburuetan ezin dela kontrolatu lan horiek betetzen diren edo ez, udal-zerbitzurik ez dagoelako, Gizarte Zerbitzuetako batzordeak, 2016ko azaroaren 30ean eginiko bileran, ezezkoa emateko proposamena egin du.

Hori ikusita, Udalbatzak, aho batez, hau erabaki du:

## ERABAKIA

Uko egitea eskaerari, eskatu diren baldintzak ezinezkoak direlako.

## SEIGARREN GAIA

### **POLIOMIELITISAK JOTAKO LAGUNENTZAT SOSTENGU MOZIOA.**

Mozio hau aurkeztu da:

**“Poliomielitisak jota izan ziren eta gaur egun ondorio berantiar edo post-polio sindromea (PPS), jasaten**

**“Moción de apoyo a las personas que fueron afectadas por la Poliomiéлитis y que hoy están padeciendo los Efectos Tardíos y**

**ari diren lagunentzat sostengu mozioa.**

Euskal Parlamentuko talde guztiek, oraintsu, post-polio sindromeak jota daudenen arretarako EZ LEGEZKO proposamenaren Transakzioko Zuzenketa aurkeztea onartu zuten, besteak beste ondorengo ataletan.

1. Euskal Parlamentuak, Osakidetza osasun portaeren gida bat lantzerantz premiatzen du, diagnosi jarraibideak, Neurologi espezialisten arretaz eta errehabilitaziorako tratamenduekin post-polio ondorio eta sindromea duten gaixoen arretarako.

2.- Euskal Parlamentuak Seguritate Sozialari, Post-polio Sindromea aintzat har dezala eskatzen dio, eta gaixo bakoitzaren egoera balora dezala bakoitzak ditun kalteetan okertzerik eman den, ezintasunaren sakontze bat egon ote den jakiteko.

Horregatik eskatu nahi dugu:

-Euskal Gobernuak Osasun Departamentuari post-polio sindromea ORPHA 2492 kodigoan, beraz, EERR lez kontsideratua egonik Euskal Gobernuak argitaratutako EERR katalogoan sar dezala eskatzen diogu.

Espainiako Gobernuari post-polio sindromea, mintsu eta gaitasun ezaren eragile kontsidera dezala eskatzen diogu, era berean ezgaitasunen balorazio sistema/baremoan sartuaz.

-Espainiako Gobernuari, abenduaren 4ko RDko 1.go artikulua 1851/2009 alda dezala eskatzen diogu. Bertan

**Síndrome Postpolio (SPP).**

Recientemente la totalidad de los grupos parlamentarios del Parlamento Vasco, aprobó presentar una Enmienda de Transacción a la Proposición No de Ley sobre la atención a las personas afectadas por el Síndrome Postpolio recogiendo entre otros, los siguientes puntos:

1.- El Parlamento Vasco insta a Osakidetza a elaborar una guía de actuación sanitaria, pautas diagnósticas, atención por especialistas de Neurología y tratamientos de Rehabilitación a los enfermos de secuelas y Síndrome Postpolio.

2.- El Parlamento Vasco insta a la Seguridad Social a que reconozca el Síndrome Postpolio y proceda a valorar el estado de cada afectado, por si el agravamiento de las secuelas que padecen fuera constitutivo de calificación de invalidez.

Relacionado con dicha Enmienda Transaccional, presentamos a Pleno:

-Pedimos al D. de Salud del G. Vasco, que el Síndrome Postpolio, al ser una Enfermedad Rara con el código ORPHA 2492, sea añadida a la lista de EERR del G. Vasco.

Pedimos al Gobierno de España que se considere el Síndrome Postpolio como una patología dolorosa, invalidante e incapacitante, incluyéndola en el sistema de valoración de la discapacidad.

-Pedimos al Gobierno de España que modifique el art. 1 del RD 1851/2009 de 4 de diciembre, en el que se regula la jubilación

ezgaitasuna duten langileen erretiro edo jubilazioa erregulatzen da, eta erretiratzeko sasoian, sendagile baten txostenak sostengatuz %45eko ezintasuna edukitzea, nahikoa izatea eskatzen da.

de los trabajadores con discapacidad en el sentido de que la exigencia del grado de discapacidad del 45% sea únicamente en el momento de solicitud de jubilación, previo informe médico.

-Espainiako Gobernuari, moldaketa hauek Estatuko Administrazio Zibileko Funtzionarioei aplikatu diezaietela eskatzen diegu. Hauek, Clases Pasivas deituriko erregimenean, kokaturik daude.

-Pedimos al Gobierno de España que estas modificaciones también se apliquen a los Funcionarios de la Administración Civil del Estado, encuadrados en el Régimen Especial de la Seguridad Social de los Funcionarios Civiles del Estado, dentro del Régimen de Clases Pasivas.

**EPE-Euskadiko Polio Elkarteak, FEAPETeko bazkide izanik, Udaletxe honetako Plenoari, gaur internazionalki polioa gogoratzen den egunean, poliomieltisduen aintzat hartuz publikoki bere babesa adieraz diezaien eskatzen diogu."**

**PEAPET (Federación Española de Asociaciones de Polio y sus Efectos Tardíos), y EPE (Euskadiko Polio Elkarteak), instamos al Pleno de este Ayuntamiento a mostrar su apoyo y reconocer públicamente a los supervivientes de la poliomieltis con ocasión de la conmemoración del Día Internacional de la Lucha Contra la Polio."**

Udalbatzak aho batez erabaki du mozioa onartzea.

## **ZAZPIGARREN GAIA KONTU-HARTZAILEAREN TXOSTENAK.**

Txosten hau jakinarazi da:

"2016. EKITALDIAN ORDAINTZEKO BATEZ BESTEKO EPEA.

2/2012 Lege Organikoak, apirilaren 27koak, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantzen Iraunkortasunari buruzkoak, ekarri du batez besteko epea kontzeptua (OBE). Kontzeptu honek azaltzen du zor komertziala ordaintzeko erabili den denbora edo izan den atzerapena. Horrela Administrazio Publiko guztiek, gardentasun-ariketa berri batean, ordaintzeko batez besteko epea argitaratu beharko dute.

Atxikita dauden orrietan Irurako Udaleri 2016ko hiruhilabeteko bakoitzeko ordainketa epeari buruzko txostenak jakinarazten dizkizuet.

Horren laburpena hau da:

- 1. hiruhilabeteko epea: 1,57 egun.
- 2. hiruhilabeteko epea: -8,68 egun.
- 3. hiruhilabeteko epea: -10,78 egun.
- 4. hiruhilabeteko epea: -19,84 egun.

Kopurua negatiboa agertzeak adierazi nahi du jarritako epean baino denbora gutxiagoan ordaintzen direla fakturak. Kopuru positiboak, aldiz, denbora gehiagoan ordaintzen direla adierazi nahi du.

Kasu batean agertzen da positibo, nahiz eta lege barruan egon: muga 30 egunekoa da.”

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

### **ZORTZIGARREN GAIA**

**GALDE-ERREGUAK.-** Gai hauek jorratu dituzte:

- a) Ainhoa Ugalde zinegotziak galdetu du ea nola dagoen 2017ko Aurrekontuko izapidea, urtarrilaren amaieran gaude eta. Alkateak erantzun du prestatzen ari direla, eta prestatuta dagoenean zabalduko dutela, eta batzorde informatiboa ospatuko dela udalbatza pasa aurretik.

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak 19:45ean eman du amaitutzat bilera. Bertan esandako guztia aktan jaso dut, eta dena EGIAZTATZEN dut, idazkari gisa.

ALKATEA

IDAZKARIA